

XXIII. ERLE EGUNA

Antolatzailea: Erle Lagunak · Laguntzailea: Usurbilgo Udala

AZAROAK 23, LARUNBATA

“20.000 Especies de Abejas” filma

22:00 Sutegiko auditoriumean.

Sarrera: doan.

Zuzendaria eta gidoia: Estibaliz Urresola Solaguren.

Aktoreak: Patricia Lopez Arnaiz, Ane Gabarain, Itziar Lazkano, Martxelo Rubio, Sara Cozar, Unax Hayden, Sofia Otero eta Patricia Lopez Arnaiz.

Hiru Goya sari jaso dituen filma: Jatorrizko gidoi onena, zuzendari berri onena eta taldeko emakumezko aktore onena.

Cocók zortzi urte ditu. Ez dator bat gainontze-koek berarengandik espero dutenarekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek beti Aitor deitzen dioten arren, berak ez du bere burua izen horrekin identifikatzen. Anek, bere amak, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera joateko. Bertan bere ama Lita eta izeko Lourdes erlezaina bizi dira. Uda honek bizitza aldatuko die.

AZAROAK 24, IGANDEA

XXIII. Erle Eguna

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

11:00-14:00 · Azoka. Postuetako salmenta.

· Erakusketak Sutegin: Erleak, eztia, ontziratzeko prozesua... Marrazki Lehiaketako lanak, bideoak

11:00 Ezti dastaketa frontoian

Eztia eta txokolatearekin egindako goxoak

Jogurta eztiarekin banatuko da.

13:30 Euskal Herriko XXIII. Ezti Lehiaketako sari-banaketa:

- Ezti Lehiaketako irabazleak

- Gozogintzako irabazleak

- Marrazki lehiaketako irabazleak

IKASTAROAK

ALKARTASUNA KOOPERATIBAREN IKASTAROAK

Antolatzaileak: Sagardoaren Unibertsitatea; Alkartasuna Kooperatiba; Usurbil Sagarraren Bihotza, Sagardoaren Kultura.

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala; Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

Izen-emateak: Alkatasunako telefonoan 943 361114 eta alkartasuna.eus web orrian.

Azaroak 14, osteguna

Sagastien bioaniztasuna: sagardondoek zein bizilagun dituzte?

18:00 Potxoenean · Irakaslea: Iñaki Sanz Azkue · Sarrera: doan.

Azaroak 28, osteguna

Sagardo Dastaketa Kluba · 18:30 Aginagako Eliza Zaharrean.

Gonbidatuak: Bizio Sagardoak · Prezioa: 10€. Pertsona kopuru mugatua.

Sagardo dastaketa Kluba. Bizio Sagardoaren sagardo apardunak, freskoak eta biziak.

Sagardoa edari 'kontsumituagoa, erakargarriago eta gaurlotuagoa' egin nahi du Bi-zio Sagardoak-ek. Horretarako, sagardo apardunak, freskoak eta biziak egiten dituzte, modu naturalean eta %100 frutarekin ekoiztuz.

Ez dute iragazten, ezta gehigaririk botatzten.

ARTO OGIA EGITEN IKASI

Irakaslea: Idoia Artuzamunoa · Antolatzailea: Txokoargi Elkarte

Non: Txokoaldeko Txokoargin.

Noiz: Azaroak 23 · Ordua: 10:00-12:00

Prezioa: 10 €. Izen-ematea: Telefonoz: 619 591849

(Arratsaldeko 16:00etatik, 18:00etara) Gehienez ere, 12 lagun.

26

asteartea 17:30 Pelaioenean

Hitzaldia: “Bakarrik bai da bai legea”

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren ha-
rira, Irule abokatuak taldearen eskutik.

Abenduko aurrerapena!

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 30

Larunbata 22:00 Aginagako Eliza Zaharrean

EUSKARAREN GALA

Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea · Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Sarrerak: usurbilkultura.eus -en.

Gurean urteroko hitzordu bihurtu den festa. Aurkezleek gidatuta: bakarriketak, musi-kariak, magoa, zirkua, dantza eta askoz gehiago! Adi, azaroan zehar emango baitute artisten berri!

Abenduak 1

Igandea Egunean zehar Mikel Laboa plazan

MIKEL LABOA GOGOAN

Abenduak 1

Igandea 11:30 Oiardo Kiroldegian

PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE

OSTIRALA IRITSI DA! EMANALDIA

Antolatzaileak: Noaia! Kultur Elkarte eta Usurbilgo Udala.

Nori zuzendua: Haur eta gaztetxoei.

Sarrerak: 8 € usurbilkultura.eus webgunean.

Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta ber-taratutako lagunek Txapas irakaslearekin batera, bere azken laneguna igaroko dute, elkarrekin ikasitakoa ospatuz.

Abenduak 1

Igandea 18:00 Aginagako Eliza Zaharrean

“ARTEA” ANTZEZLANA

Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkarte.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala

Sarrerak: usurbilkultura.eus webgunean.

ARTEA hiru lagun arteko KOMEDIA da. Sergiok koadro moderno bat erosi du dirutza handia ordaindu ondoren. Marcosek gorroto dio koadroari, gainera kosta egiten zaio sinistea Sergiori koadroa benetan gustatzen zaionik. Hirugarren laguna, Ibon, saiatzen da Marcos eta Sergioren arteko desadostasunean bitartekari izaten.

Abenduak 3

Asteartea egun osoan zehar

EUSKARAREN EGUNA

Ekintzak egun osoan zehar. Usurbilkultura.eus webgunean izango da ekimenen berri eguna gerturatu ahala.

BISITA GIDATUAK

· Azaroak 2 Museo Irekia. 12:00 Sutegin.

· Azaroak 10 Gerraren Memoria ibilbidea. 11:30 Mikel Laboa plazan.

· Azaroak 23 Salvatore Elizaren ondarea. 12:00 Salvatore Elizan.

· Azaroak 24 Museo Irekia eta Zumeta Estudioa. 11:00 Sutegin.

· Azaroak 28 Zero Zabor. 10:00 Udaletxean.

· Azaroak 29 Zaintzaren Usurbil. 10:00 Txirikordan.

Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

Telefonoa: 747 485 140 · turismoa@650usurbilbizi.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK

OINARRIZKO INTERNETA Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi (20 ordu)

Azaroak 4-15 09:00-11:00

OFIMATIKA TRESNAK LibreOffice (20 ordu)

Azaroak 18-29 09:00-11:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Azaroan Kzgunea: goizez 09:00-13:00

Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84

tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00

Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita

Goizez

4 5 6 7 8

11 12 13 14 15

18 19 20 21 22

25 26 27 28 29

SUTEGI UDAL LIBURUTEGIA · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

Zuen deialdiak zabaltzeko,
bidali hilaren 15a baino lehen
kultura.usurbil.eus helbidera.

Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara eta Gazteria Saila

Tel. 943 371 999

kultura@usurbil.eus

www.usurbil.eus

usurbilkultura.eus

Herritarren tresna

Usurbilgo kultura zabaltzeko

	Ostirala 11:00 Frontoian	XXVIII. ARTISAU AZOKA	1
	Larunbata 10:00 Sutegin	JARDUNALDIA: “GURE LURREAN GU NAGUSI”	2
	Asteartea 19:00 Udal liburutegian	JON ARTANOREN “JUANA” LIBURU AURKEZPENA	5
	Osteguna 18:00 Pelaioenean	HITZALDIA: “ZAINTZAREN PEDAGOGIA”	7
	Larunbata Egun osoz	TXALAPARTA FESTA	9
	Larunbata 17:30 Txokoargin	ASIER KIDAM MAGOA	9
	Larunbata 18:30 Sutegin	ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDE: OILARRAK KANTU TALDEA	9
	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO FILMA: IZURDE MUTIKOA	10
	Asteazkena 18:00 Udal liburutegian	IPUIN KONTAKETA MIRIAM MENDOZAREKIN	13
	Larunbata 09:30Sutegin	JARDUNALDIA: BIZIPOZATIK ARRAZAKERIA DESERAIKITZEN	16
	Larunbata Egun osoko jaia	MUNDUALDIA	16
	Igandea 10:30 Aginagan	ORIENTAZIO JOKOAK	17
	Igandea 18:00 Sutegin	“LAU ELEMENTUAK” FILM LABURREN EMANALDIA	17
	Asteartea 18:30 Udal liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA: LH6-DBH1 YOLANDA ARRIETAREKIN	19
	Osteguna 18:00 Kalejira 19:00 Sutegin	SANTA ZEZILIREN OMENEZKO EMANALDIA	21
	Larunbata 22:00 Sutegin	“20.000 ESPECIES DE ABEJAS” FILMA	23
	Igandea 17:30 Sutegin	“USURBIL 58” DOKUMENTALAREN AURKEZPENA	24
	Igandea 09:00etatik aurrera	ERLE EGUNA	24
	Asteartea 17:30 Pelaioenean	HITZALDIA: “BAKARRIK BAI DA BAI LEGEA”	26
	Asteazkena 18:00 Udal liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA: LH3-LH5 YOLANDA ARRIETAREKIN	27
	Osteguna 18:00 Pelaioenean	URTEBETE GREBA FEMINISTA OROKORRETIK. ETA ORAIN ZER?”	28
	Larunbata 22:00 Eliza Zaharrean	EUSKARAREN GALA	30

Abenduko aurrerapena!

	Igandea 11:30 Oiardo Kiroldegian	PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE OSTIRALA IRITSI DA! EMANALDIA	1
	Igandea Egun osoan	MIKEL LABOA GOGOAN	1
	Igandea 18:00 Aginagako Eliza Zaharrean	“ARTEA” ANTZEZLANA	1
	Asteartea Egun osoz	EUSKARAREN EGUNA	3

ERAKUSKETA

Sutegiko erakustaretoan	NAFARTARRAK: HABITAT. GIZA HABITAT EZKUTATUA ERAKUSKETA	Urriaren 28tik Azaroaren 2ra
-------------------------	---	------------------------------

2024ko AZAROA

USURBIL

Kultura

TXALAPARTA FESTA

azaroak 9

TXALAPARTA FESTA

USURBIL 11/09

USURBIL 58

DOKUMENTALA

USURBIL 58

Dokumentalaren aurkezpena

azaroak 24

EKINTZAK

1

Ostirala 11:00 Frontoia eta Askatasun Plazan

XXVIII. Artisau azoka

Antolatzailea: Aitzaga Elkarte.
Aurtengoa XXVIII. Artisau Azoka izango da. Frontoian ho-geita hamar postu inguru izango dira: bitxigintza, kosme- tika, egur-lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza... Baserri-giroko azoka ere egingo da, eta taloa jateko au- kera izango da.



JARDUNALDIA
Konkistatik asimilaziora
“GURE LURREAN GU NAGUSI” (Errobi)

Antolatzailea: Nafartarrak Taldea.
Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Nabarralde Fundazioa.
Sarrera: doan.

ERAKUSKETA
“**Habitat. Giza habitat ezkutatua**” erakusketa
Noiz: Urriak 28-Azaroak 2
Ordutegia: astelehenetik larunbatera 18:00-20:00

Klima, paisaia eta izaki bizidunekin batera, giza habitataren parte banandu ezinak dira hizkuntza, kultura eta erakundeak. Bizi nahi duen herriak bere historia kontatu behar du.
'Giza habitat ezkutatua' Nabarralderen eskutik sortutako erakusketa da. 14 hormairudi edo pa- neletan jasota dago Euskal Herriko historia, «bere osotasunean eta testuinguruan jarrita, baina modu erraz eta sintetikoan». Izan ere, horrelako zerbai- ten falta sumatzen genuen.



AZAROAK 2, LARUNBATA
“**Konkistatik asimilaziora. Gure lurrean gu nagusi**” jardunaldia
10:00-13:30 Sutegiko auditoriumean.
Hizlariak: Beñi Agirre, Idoia Arrieta, Koldo Martinez Garate, Maier Anabitarte, Iñaki Idi- goras, Ane Ablanedo, Joxe Manuel Odriozola eta Eneko Bidegain.

Mende luzeetako konkista eta zapalkuntzaren ondorioz, euskaldunoi (nafarro) gure izatea eta nortasuna ezabatu dizkigute, ia. Guda bidez lehenik, gure lurra, legea eta hizkuntza kendu- ta, eta lotsarazita, gutxietsita, gero.
Memoria historikoa ez da 1936an hasten.
Badirudi euskaldunok (nafarrok) Espainia barruan pribilegiatuak garela, kontzertu eko- nomikoa eta foru hobekuntza dauzkagulako; kendu diguten guztiairen hondarrak (besterik ez) direnean.
Eta frantziarrek ere berdin iparraldean 1620 eta 1789an.
Guzti honetan sakontzeko jardunaldia izango da azaroaren 2an, Sutegin, goizeko 10:00etan hasi eta 13:30era bitarte. Denera zortzi hitzaldi labor izango dira, eta tartean, atsedenaldi txikia.



LIBURUTEGIKO EKINTZAK



Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia

AZAROAK 5, ASTEARTEA
Jon Artanoren “Juana” liburuaren aurkezpen-solasaldia
19:00 Udal liburutegian. Egilea bertan izango da.



AZAROAK 13, ASTEAZKENA
Ipuin-kontaketa Miriam Mendozarekin
18:00 Sutegi Udal liburutegian.
HH3-HH5eko haurrentzako.

AZAROAK 19, ASTEARTEA
Irakurketa Solasaldia Yolanda Arrietaekin
18:30 Udal liburutegian.
LH6-DBH1ko gaztetxoentzat, Yolanda Arrieta bidelagun izango dugularik.



AZAROAK 27, ASTEAZKENA
Irakurketa Solasaldia Yolanda Arrietaekin
18:00 Udal liburutegian.
LH3-LH5eko haur eta gaztetxoentzat.

ZAINTZA EKIMENEN ZIKLOA



Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

AZAROAK 7, OSTEKUNA
Hitzaldia: “Zaintzaren pedagogia”
18:00 Pelaiotegian.
Hizlaria: Nora Salbotx.
Sarrera: Doan.

Urte luzez, zaintzaren esparrua gutxietsia izan da hez- kuntzan. Gaur badakigu, feminismoaren ekarpenari esker, zaintza hezitzailea dela eta zaintzaren pedago- gia, patriarkatua eraisteko heziketa guneetan baliatu beharreko tresna dela.



AZAROAK 28, OSTEKUNA
Hitzaldia: “Urtebete greba feminista orokorretik. Eta orain zer?”
18:00 Pelaiotegian.
Hizlariak: Elene Lopetegui eta Uma Ulazia.
Sarrera: Doan.

Urtebete pasatu da Euskal Herriko Mugimendu Femi- nistak greba feminista orokorra deitu zuenetik. Egun historikoa izan zen, greba orokor batek zaintza lanak izan baitzituen hizpide. Horrek utzitako aztarnak az- tertuko ditu solasaldiak, eta etorkizuneko erronketan arreta jarri.




9

Larunbata Egun osoz Gune desberdinetan

Txalaparta festa

Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte eta 650 Usuril Bizi!
Bazkarirako txartelak: Helduak 39€ usurbilkultura.eus bidez. Umeentzako menua ere egongo da, 25€tan. (Umeentzako menua, aurrez, usurbiltxalaparta@gmail.com emailera eskatu behar da eta egunean bertan ordainduko da) Bazkarirako txartelak eskatzeko azken eguna: azaroak 5.
10:00 Harrera eta kanpaiak jotzea (Garai batean Artzetarrek egiten zuten erara).
12:00 Txokoaldeko Txalaparta Txokoan Oreak Tx eta mokadutxoa.
14:00 Ibilaldia Erriberatik Albokarietara.
15:00 Bazkaria Aginaga Sagardotegian (txartelak aurrez erosi behar dira).
17:00 *Madriren Txalaparta* taldearen emanaldia Sagardotegian bertan.
20:30 *Fanfarrikant* eta txalaparta kalejira herrigunean.



9

Larunbata 12:00 Mikel Laboa Plazan 18:30 Sutegin

ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO XXI. IKASKOLI KANPAINA
Oilarrak taldearen emanaldia

Antolatzailea: Nafartarrak.
12:00 Mikel Laboa plazan elkartu eta jarraian herritik buelta bat emango dugu, Zuberoako *Oilarrak* kantu taldeak lagunduta (20 bat musikari eta kantari izango ditugu gure artean).
18:30 *Oilarrak* kantu taldearen emanaldia Sutegi aretoan.
Sarrerak: 10 € Lizardin eta egunean bertan.
“Oilarrak müsika eta kantorez aladageratzen den talde bat da, gaur egün hogeit bat gizon botzez osatürik dena. 30 urtez, taldeak elkaldi desberdin hanitx egin izan ahal dütü, hala nola Xiberoko müga gainditü dü, jakinez Xiberok talde hori ikusi beütü sortzen eta nola ez güne desberdinen alageatzen, momentü goxo eta seriosak partekatzez.
Taldea amatür honen barnen 5 albüma kontatzen dütügü. Xiberotar azentüa eta bortüetako botzen ozentazüna atzaman daiteke: artzainen kantore, besta edo ezkontzentako kanto- re... kantore erreperitorio handi bat nun akapela kantoreak edo instrumentuen bidez diren bertsiö zunbait aldizkatzen diren. Hala nola, akordeioa, perkusio, gitarra, xirula edo biolina. Zeltera erreperitorian hartütako melodia zonbaitek, orroitaratzen ahal lükete Irlandako ta- bernetan edo Mikel Urdangarinen kontzetütetan bazen giroa.
Püblikoak, Matalazen pastoralaren kantore libürüxka jarraikiarazten ahalko dü harekin, talde honi süstengü ekarteko, nola ez Usurbileko belaünaldi güzier plazerra ekarteko!.”



10

Igandea 17:00 Sutegiko auditoriumean

Izurde Mutikoa

Antolatzaileak: Ziortza eta Usurbilgo Udala.
Sarrera: 3,20 euro. Usurbilkultura.eus webgunearen bidez.
Iraupena: 85 minutu.
Norentzat: Adin guztientzat.
Izurde batzuek itsasoan aurkitzen duten haur bat erreskatatzen dute eta bere familiako beste bat be- zala hazten dute. Kezkarik gabeko bizitza bizi du olatuen azpian, munstro gaizto batek itsaspeko mun- duaren gaineko boterea hartzen duen arte. Umea lehorrera erbesteratzen dute, eta Murvarid kapitain onberak han hartzen du. Kapitainaren eta "Bola de Nieve" izurdearen lagun leial eta ia anaiaren lagun- tzarekin, haurrak bidaia bat egiten du bere benetako jatorriaren misterioa argitzeko.



17

Igandea 18:00 Sutegiko auditoriumean

“Lau elementuak”
film laburren emanaldia

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Geuretik Sortuak (Udalbiltza)
Sarrera: 3 euro. Usurbilkultura.eus webgunearen bidez.
Lau film laburrez osatutako emanaldi honek Geuretik Sortuak projektuko bigarren edizioaren barruan zinema-lanak barne hartzen ditu. Euskal Herriko hainbat txokotan sortutako lau istorio, bakoitza bere ahots eta kontakizun propioarekin. Arriguri "**<3**" sortu du Uharten, Alba Lozanok "Ütlandsk" Oiartzunen, Aitzol Saratzagak "Ehiza" Legutian eta Pette Etxebarriak "Oiogorri" Antzuo- lan eta Aiherran. Horiek dira Lau Elementuak.



21

Osteguna 18:00 Kalejira 19:00 Sutegiko auditoriumean

Santa Zeziliren
omenezko emanaldia

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.
Sarrera: Doan.
18:00tan Santa Zeziliren omenez Euskal Herriko Musika Eskola guztiak bateratuta, KALEJIRA egingo dugu Usurbilgo kaleetan zehar, trikitixa-pandero eta haizezko zein perkusioko instrumentuekin batera.
19:00tan Sutegin, talde instrumental desberdinen kontzertua egingo dugu.



24


Igandea 17:30 Sutegiko auditoriumean

“USURBIL 58”
dokumentalaren aurkezpena

Usurbilgo Udalaren Sormen Bekarekin lagundutako lana

Antolatzailea: Noaia! Kultur Elkarte.
Nori zuzendua: helduak.
Sarrerak: doan.

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filmategian. Juan Illarramendik filmaturiko irudi eder hauek ordea, akats bat dute. Soinua falta dute. Mutuak dira. Ahotsik gabekoak izanik ere, gutaz ari dira. Gure herriaz, gure ohiturez. Garai bateko Usurbil irudikatzen dute.
Irudietako soinu falta ordezkatzeko, adin bat duten herritarrak gonbidatu genituen Sutegira. Garai hartako Usurbil eta garai hartako usurbil- darrak ezagutu zituztenak. Eurek eskaini dizkigu- ten azalpenekin osatu dugu dokumental honen soinu banda.



9

Larunbata 17: 30 Txokoargin

Asier Kidam Magoa

Antolatzailea: Txokoargi elkarte.
Sarrera: doan.
Norentzat: Haurrentzako eta familientzako magia ikuskizuna.
Horrela aurkezten du magoak ikuskizuna: “Aspertuta zaudela zeure koinatua brokolia goratzen entzuteaz? Faktura eta pre- zioen igoerak itotzen zaituela? Etxeko txikiekin egiteko ideia dibertigarriak agortu zaizkizula? Hartu zazu atsedean eta zatoz “Smile” ikustera. Ikuskizunak irauten dituen 60 minutuetan zehar zeure arazoak desagertu eta haien lekuan sekulako irri- barrea agertuko da.”



17

Igandea 10:30 Aginagan

Orientazio jokoak

Antolatzailea: Antxomolantxa.
Iraupena: 2 ordu.
Norentzat: Adin guztientzat.

Orientazioa landuz ibilaldi bat egingo dugu taldee- tan banatuta. Lagun taldean nahiz familian etor zaitezke, baita bakarrik ere. Animatu eta gozatu aire libreaz!!

